

Errenteria

HERRI BIZIA 

LANDA EREMUA, EZ HAIN URRUN

Zona rural, no tan lejos

Zamalbide

3. ORR. >>

Argazkiak

6. ORR. >>

Herri Bizia

8. ORR. >>

Auzoetan
ere jai

12. ORR. >>

Errenteria
Bizia

15. ORR. >>

HERRI BIZIA

ESKU TELEFONORAKO UDAL APLIKAZIOA
LA APLICACIÓN MUNICIPAL PARA TU MÓVIL

APPa
ESKURAGARRI!
¡APP
DISPONIBLE!



Ordulegiak · Horarios
Helbideak · Direcciones




Albisteak
Noticias



Jaialdi eta jaien egitarauak
Programas de fiestas y festivales

Eta askoz gehiago
Y mucho más



HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus

herribizia.errenteria.eus/app/

AUZORIK ZABALENA



Errenteriako landa eremua egon badagoen errealitatea da; kasik bizkarra ematen bazaio ere, Errenteriaren birika da. Biztanle gutxien dituen auzoa da, 700 pasatxo auzotar ditu eta, baina azaleraz handiena da: udalerraren azaleraren ia %90 da. Zamalbideko eliza eta inguruak dira, nolabait, nukleo nagusia, eta kaleak eta landa eremuak ia-ia bat egin dute, industrialdeen hazkuntzarekin.

Zenbat buru, hainbat aburu esan ohi da, eta Zamalbiden ere errealitateak hamaika dira. Joanjo Aduriz eta Iolanda Eturena da errealitate horietako bat, eta Azañeta baserri zenaren lurretan bizi dira. Aduriz baserri hartakoa da, beste bederatzi senide bezala. Etura, berriz, Alabergan sortu zen, eta bi hamarkada pasatxo daramatza han bizi zen.

Adurizek nabarmendu duenez, bizimodua zeharo aldatu da duela hainbat urtetik hona. «Lehen baserrietik bizi ginen, eta baserriko. Gu hamar senide gara, eta gazteenek zaharrenek baino aukera gehiago izan zituzten eskolara joateko. Ama baserriko produktuak saltzera joaten zen plazara, eta hartaz bizi ginen», gogorarazi du. Beraien belaunaldia izan zen baserri lanekin eten zuena, «tetra-brik-aren garaian», Adurizek umoretsu gogoratzen duen moduan. Nekazaritzak zuen pisua asko arindu da, eta ziurtatu dutenez, baserri «bakarrean



edo pare batean» bizi dira base-
rriak ematen duenetik. Badira bes-
te baserri asko bertako lana kanpo-
koarekin uztartu behar dutenak.

Eturak eta Adurizek —«zorionez»,
berretsi dutenez— goizetan lan egi-

*Dentro de la propia
zona rural de
Errenteria, existen
divisiones. Algunos
caseríos están más
aislados que otros,
y hay habitantes
que tienden más
hacia Astigarraga u
Oiartzun, que
para Errenteria*

ten dute, baina horrek ez du esan
nahi arratsaldeak libre dituztenik.
Orereta Ikastola etxetik hurbil dute
—Errenterian hori esan dezake-
ten asko ez dira—, baina eskolaz
kanpoko jarduerak zein aisiarako
seme-alabek txoferra behar dute.
«Arratsaldero bidaia pare bat egiten
ditugu. Horrek dakarren arazoare-
kin... Errenterian autoa uztea zai-
la da», esan du Adurizek. Izan ere,
haien seme-alabei ahalik eta zerbit-
tzu gehien eman nahi baitizkiete.

Eturak azaldu duenez, asteburu-
tan alabak kalera jaitsi nahi du, eta
horretan ere bai taxilari lanak egin
behar dituzte, eta auzotarrek Ponti-
kan duten TAO zerbitzua gogorara-
zi du. Berdin erosketekin eta beste
hainbat betebeharrekin. Hala ere,
geroz eta zerbitzu gehiago dituztela
nabarmendu dute. Adibidez, etxez
etxe joaten da okina, Hernanitik eto-
rrita. Hala ere, auzoan bertan badau-
de ezberdintasunak. Azañetakoen
kasuan, ikastola bertatik bertara
dute, eta autobusa etxetik oso apar-

te ez da pasatzen. Herribideetan ba-
rrera sakabanatuta dauden baserri
asko isolatuago daude, ordea.

Kalekoek modu sinplean egiten du-
ten jarduera bat ia abentura bila-
katzen da landa eremuan bizi dire-
nean kasuan: hondakinak botatzea.
Aduriz: «Edukiontziak ikastola on-
doan genituen, baina etxean obrak
egiten zituztenak hasi ziren bertan
botatzen. Ondoren, villetan jarri zi-
tuzten, eta orain kendu egingo di-
tuzte. Orain Zentolenen jarriko dute
zabor bilketa gunea». Nabarmendu
duenez, distantzia zehatzik emat-
tera ausartu gabe, baserritarrek
kilometro ugari egin behar dituzte
hondakinak botatzeko. Hondakine-
tan, baina, abangoardian egon dira,
Adurizek azaldu duenez: «Konposta
zer zen jakin baino lehenago, guk
egiten genuen».

Ingurune lasaia

Landa eremuan bizitzeak badu bere
erosotasuna, baina baita bere mu-

La distancia entre las viviendas de Zamalbide es grande. Eso dificulta mantener relaciones, y convierte en casi una odisea actividades del día a día, como desplazarse o depositar los residuos



gak ere, Adurizek azaldu duenez. Badira kaletik hara joan direnak eta bueltatu behar izan dutenak: «Zure asmoa baldin bada egunero kalera jaitea, lagunekin egotea eta abar, hau arazo bihurtzen da. Gure kasuan, galdetzen digute ea kalera jaisten garen; beharrik ez bada, ez».

Aduriz bera kalean bizitakoa da, eta baserrira bueltatu da. Erosotasuna baino, beste mota bateko arazoak bultzatu zuen horretara: «Baserrri gehientsuenetan gertatzen da seme-alabak baserrira bueltatzen direla, badagoelako eremuarekiko atxikimendu hori. Garen hamar senideetatik, zortzi bueltatu gara, kalean genituen jabetza guztiak saldu ondoren».

Kalekumea izaki, Eturak gogorazten du bere ingurukoek, harrituta, nola galdetzen zioten ea bazekien nora joango zen. Berak baietz erantzuten zien, haien harridura eraginez. Orduan, aspaldi ez bada ere, etxeko atea zabalik uzten zutela gogoratzen du.

Auzoak duen lasaitasun hori pixka bat aztoratzen duena, baina, trafikoa da. «Azken urteetan», esan du Adurizek, «trafiko zama handia pairatzen dugu». Eturak hori berretsi du, lantokira egunero oinez jaiten delako. Inguruetan eraikitako industriaguneeek auto asko erakarri dituzte, eta fabrikek baino, ibilgailuek egiten du zaratarik handiena. «Harrobi txiki moduko bat jarri dute, eta hori da zarata gehien sor dezakeena, baina apenas ez dugu nabaritzen», berretsi dute.

Harremanetarako, zaila

Landa eremuan bizilagunak bata bestearengandik nahiko aparte bizi dira. Baserriaren erreferentziarengatik ezagutzen dute elkar, nahiz eta, agian, nor den nor zehazki ez dakiten. Auzoak, elizaren inguruaz

gain, ez du beste 'nukleorik', eta zeukaten topagune bakanetakoa galdu zuten: Perurena taberna. Astigarragako lurretan egon arren, Zamalbide eta Bentak auzoen arteko zubi lanak egiten zituen. «Ez du batere mesederik egin taberna ixteak. Egunerokoaz gain, auzoko festetan hutsune hori ere nabaritzen da. Tabernarik gabe pixka bat hankamotz geratzen dira...».

Hala ere, auzoko festek, helduentzako tabernarik gabe ere, badute alde ona: auzoko —eta auzoan bizi izandako gurasoen— haurrak elkartzen diren gunea dela ziurtatu du Eturak. «Auzokoen artean elkartzeko aukera handirik ez daukate, eta gainera, ez daude hainbeste haur. Ikastolan topo egiten dute haurrek, baina segun non dagoen baserrira kokatuta, herri batera edo bestera jotzen dute haurrek», zehaztu du. Eturak berak, bromeatzen esan duenez, jende asko eza-gutu du autobusean.

Distantziak distantzia, argi dagoena da Erreteriako landa eremua egon badagoela. Hura ere, kalea bezala, auzo bizia baita.





Bizia itan



informate del día a día en
herriko egunerokotasunaren
berri izateko



HERRI BIZIA

herribizia.errenteria.eus



« Aniztasunaren notak

Pluraltasunetik sortua,
dantzagarria eta udako abestia
da 'Egin zaidazu bisita'.

Deskargatu hemen: [http://herribizia.](http://herribizia.errenteria.eus/aliantza-elkarbizitza/egin-zaidazu-bisita/)

[errenteria.eus/aliantza-elkarbizitza/egin-zaidazu-bisita/](http://herribizia.errenteria.eus/aliantza-elkarbizitza/egin-zaidazu-bisita/)

8

Solidaridad en movimiento

Sudor digno y justo con y
por Juneren Hegoak



Fanderia Errota, Ibaiaren Etxea

Herriko industria
eta natur ondarea,
herritarrei irekita



Musika Plaza

Musika Plaza zen, orain, Jose Luis Ansorena Musika Plaza. Haren omenez, baina, musikazale guztiena da orain



Voz a los barrios

El Ayuntamiento ha tomado nota en las reuniones de todos los barrios, para mejorarlos



Aro berria

Zuzendaritza berria Touring Kirol Elkartean, hazteko eta erreferentzia izateko





⤴ **Acuerdo para el centro de la cultura**

Lekuona será un espacio referencial para la creación intelectual, tecnológica, artística y científica, gracias al acuerdo firmado por el Ayuntamiento y la Diputación Foral de Gipuzkoa. En marzo empezaron las obras de este moderno complejo que acogerá la transformación de las costumbres de la ciudadanía, adecuándose a los nuevos tiempos, tras redefinir sus usos



Adierazpen askatasuna

ARCOK Santiago Sierraren lana zentsuratu egin zuen, baina Erreterriak zabaltzeko hautua egin, eta bultzada eman zion artearen eta sorkuntzaren adierazpen askatasun ikur bihurtu zenari. Izan ere, isildu nahi dituzten errealitateetara hurbiltzeko aukera eman zuen erakusketarekin, artearen adierazpide libreneri bide eman zitzaion. 'Presos políticos en la España contemporánea' obrak ehunka bisitari izan zituen



//udal taldeen mezuak//

GORA MADALENAK!

[PSE-EE] Ante el inicio de las fiestas patronales desde el grupo socialista deseamos felicitar a todos l@s vecin@s y animarles a que participen de las mismas con respeto, consiguiendo entre tod@s que sean inclusivas, alegres y participativas desde la igualdad y la solidaridad.

Durante todo el año, pero especialmente en fiestas, pedimos TOLERANCIA CERO contra cualquier tipo de actitud machista, racista o discriminatoria.

Disfrutémoslas juntos desde la diversidad cultural que nos caracteriza como pueblo, recordando a los errenterian@s que no podrán estar entre nosotros y agradeciendo a todas las entidades, asociaciones, voluntarios, servicios municipales y de seguridad el trabajo que realizan poniendo todo su empeño para que las fiestas discurran con normalidad y así podamos disfrutarlas.

GOZATU MADALENAK!

[EAJ-PNV] Madalenak iristeko egun gutxi falta dira eta festa giroa nabari da dagoeneko. Egun bereziak dira errenteriarrentzat, lagunez, familiaz, tradizioez, kontzertuez eta hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera ematen baitigute. Guztiok ditugu gure bizitzako etapa desberdinetan Madalenetan bizitako oroitzapen zoragarriak. Madalenetako oroitzapenak guztiontzat onak izan daitezzen, bizi ditugun gure herriko jaiak errespetuan. EAJ-PNVk bereziki aldarrikatu nahi ditu emakumeenganako errespetuan oinarritutako eta indarkeria matxistarik eta eraso sexistarik gabeko jaiak. Jai giroan ere EZ EZETZ DA!

Nos encontramos a las puertas de las Madalenas, fechas llenas de recuerdos para las y los errenteriaras. Para que esos recuerdos sean hermosos, debemos basar nuestras fiestas en el respeto. Desde EAJ-PNV reivindicamos una vez más que ¡NO ES NO! Incluso en fiestas.

MADALENAK, HERRIA EGITEN

[IrabaziZ] Un pueblo, es el encuentro entre personas de diferentes orígenes, siendo el respeto por esta diversidad el motor del conocimiento entre culturas. Culturas y personas de diferente origen, género, opción sexual o religión formamos un todo con personalidad propia; personas con corazón que somos y hacemos Errenteria.

Las Madalenas son espacio perfecto para fortalecer esa alianza; donde Abdel conocerá a Mikhail, Mikhail a Maialen, Maialen a Iria, Iria a Santi, Santi a Chen... no perdamos la oportunidad de conocernos, relacionándonos desde el respeto y libertad de ser, sentir, querer y amar como cada persona desee, sin imponer.

Animamos a la ciudadanía a participar en Madalenas; con especial recuerdo a las personas que por diferentes motivos no puedan compartir estos días entre nosotras y nosotros.

ASKE MAITE, ASKE BIZI

[EH Bildu] Eragile eta herritar askoren lanari esker, egitarau oparo eta herritarraz datozkigu Madalenak, gure kaleak koadrila anitzen topagune bilakatzen dituztenak. Gurea herri bizia bada izatez, egun hauetan are biziagoa bilakatzen da, guztiok lekua izango dugun herria irudikatuz, guztiontzat erakargarria izango den eskaintza sortuz. Eta guztionak behar duten jai hauetan, ez dute lekurik, urte osoan zehar ematen diren arren, jai giroan naturalizatzen eta areagotzen diren eraso sexistak, sexual, homofobo eta arrazistek. Madalenetan ere betaurreko feministak jantzi eta begirada zorroztea dagokigu, inor ez dadin izan inoren menpeko. Inork ez dezan EZETZ behin baino gehiagotan oihukatze beharrik izan. Txupina jaurtiko duten auzo elkarteekin legatua jaso eta Madalenetan ere, aske maite eta gozatzera gonbidatzen zaituztegu.

Estimulando los barrios



12

Las fiestas son un cambio en la rutina diaria de los barrios. Para llevarlas adelante, el vecindario se remanga y se pone manos a la obra. Es un trabajo voluntario, que consume mucho tiempo libre, pero quienes lo realizan se muestran satisfechas y satisfechos con el trabajo que realizan. También las personas que habitan la zona, a quienes se les ofrece la posibilidad de 'hacer barrio'.

Errenteria está compuesta por 15 barrios. Cada uno tiene su personalidad y su forma de vida, y se pueden encontrar micromundos distintos en unos pocos metros de distancia. Aparte de la obvia pertenencia al mismo municipio, si hay un denominador común para la mayoría de los barrios, es que organizan sus propias fiestas. Copan casi toda la primavera y se toman un respiro antes de Magdalenas.

Unas de las más tempranas son las de Alaberga. Se celebran el último fin de semana de mayo. Unai Bellota, Enara Maiz e Hibai Otamendi son miembros de la Comisión de

Fiestas de Alaberga. Estas fiestas tuvieron su momento de esplendor hasta 2004, año en que se dejaron de celebrar por cansancio de los organizadores. En 2009 reaparecieron puntualmente coincidiendo con el medio siglo del barrio, y fue en 2013 cuando se formó la actual comisión de fiestas. «Nos juntamos cuatro chalados», recuerda Otamendi, «y nos encontramos con que no sabíamos organizar unas fiestas». Eso sí, aseguran que contaron —y siguen contando— con la ayuda de los veteranos. En 2014 celebraron las primeras fiestas de la segunda época.

En aquel mismo año se renovó la comisión de fiestas de Gabierrota, con la entrada de diez personas. Las

fiestas se celebran inmediatamente antes de Magdalenas. Decidieron separar la comisión de fiestas de la Asociación de Vecinos Laguntasuna. Como muchas cosas en la vida, la razón fue económica. Así lo explica Eva Díaz de Isla: «Las subvenciones que se recibían eran conjuntas. Decidimos que iban a ser independientes: lo que se saque en las fiestas, será para las fiestas. Antes iba para la asociación». Con ese dinero se está renovando el material de las fiestas, por ejemplo, el de la tamborrada.

Oportunidad para reunirse

Las fiestas son una pequeña explosión de alegría colectiva, pero también un instrumento para que las personas que viven en el barrio se conozcan entre sí. Con esa idea como bandera, se lanzaron a la piscina en Alaberga. «El primer año todavía no nos conocíamos, solo de vista. Pusimos un cartel en la sociedad y aparecimos unos cuantos para organizar las fiestas»,

recuerda Otamendi. Y es que, subrayan, Alaberga tiene una población bastante envejecida y poco a poco la juventud están rellenando el hueco de quienes faltan. Y con ellos, sus hijos e hijas.

El principal motivo de organizar de nuevo las fiestas es que las y los jóvenes del barrio tuvieran un fin de semana para juntarse y para que se conocieran. «El de las fiestas es nuestro fin de semana, que nos bebemos unas cuantas cañas, pero también la de los chavales, porque están todo el día jugando por ahí», apostilla Otamendi. «Y también incentivamos la cohesión del barrio», añade Bellota.

En Gabierrota, una de las mayores razones para tomarse este trabajo es mantener entretenidos a las y los más jóvenes del lugar; además de buscar la participación. Y en eso hacen pleno: en tres días, tres veces se reúnen alrededor de la mesa. «La gente durante el año tiene trabajo,

actividades, las amonas y los aitonas cuidando a sus nietos... no se juntan. Hay mucha gente que es del barrio de toda la vida, y ha vivido lo que era antes, cuando estaban todos juntos luchando por lo que es el barrio ahora. Ahora se ven una vez al mes, y para ellos esos tres días son importantes. Le da vida a Gabierrota».

Quienes componen ambas comisiones admiten que organizar las fiestas requiere mucho tiempo, más si cabe, al ser un trabajo voluntario. En Alaberga son media docena quienes conforman la comisión de fiestas, y tienen que echar mano de más personas voluntarias: gente del barrio, de las cuadrillas, conocidas y conocidos... En total son unas 50 personas haciendo turnos en la txosna, supervisando las actividades y en todo lo que se pueda echar una mano. «Unas semanas antes de fiestas vamos articulando esa red», dice Bellota. En Gabierrota, según comenta Díaz de Isla, la gente también es muy receptiva. Incluso cuando se trata de

Bakoitzaren auzoko festak antolatzeke, ordu libre asko ematen dituzte boluntarioek. Bueltan, baina, auzotarren eskerrak jasotzeak asebetetzen ditu

LAGUNTASUNA, 50 AÑOS

La Asociación de Vecinos Laguntasuna cumple 50 años este 2018. Es una de las más antiguas —con actividad continua— del Estado español. Nada tienen que ver la Gabierrota de 1968 con la de hoy ya que, como cuenta Díaz de Isla, eran «dos casas perdidas». «Con mucho trabajo voluntario, con mucho insistir y con muchas peleas con las instituciones se ha conseguido que el barrio sea lo que es ahora. Han sido muy constantes», añade. A pesar de que Gabierrota haya mejorado mucho, siguen peleando por mejorarlo aún más, asegura Díaz de Isla. En abril, como celebración, 260 vecinos se congregaron en una comida y publicaron un libro (*Laguntasuna (1968-2018) Gabierrota 50 urte borrokan*, Txema Arenzana).



LOS BARRIOS, EN EL TXUPINAZO

¿Cómo juntar todos los barrios en ambiente festivo y en un mismo momento? Fácil: concediéndoles el honor de echar el txupinazo de Magdalenas. Todos los grupos políticos del Ayuntamiento aprobaron que las 15 asociaciones vecinales compartirán prender la mecha, aunque será difícil que el 21 de julio quepan todos a la vez en el mismo balcón. El pleno municipal quiere reconocer así todo el trabajo realizado por las vecinas y los vecinos de los barrios, y que, gracias a ellas y ellos, Errenteria se convirtió en lo que es hoy en día.

14

algo espontáneo: «Vas por el barrio, le pides a alguien que te corte la carretera un momento porque pasa la tamborrada y lo hace».

El mayor reto al que se enfrentan es la innovación. «Es lo más difícil», señala Maiz. «Para eso necesitas imaginación o dinero... Así que tenemos que tirar de imaginación». Con todas las limitaciones, afirma que en Alaberga el programa de fiestas suele variar bastante

En Gabierrota también se encuentran con el mismo problema. Este año la Asociación de Vecinos Gabierrota cumple 50 años y querían llevar a cabo algo especial. Díaz de Isla compara las fiestas de hace unos cuantos años y las de ahora: «Antes había vaquillas nocturnas, conciertos potentes... Eso atraía a mucha gente de fuera del barrio, pero ahora no hay ni permisos ni dinero para traer a grupos». Aquí también tienen que hacer encaje de bolillos con el presupuesto.



Eva Díaz de Isla



Hibai Otamendi

No solo fiesta

No se puede hablar de fiestas del barrio como algo independiente de su entorno. En Alaberga las celebraciones no se limitan al último fin de semana de mayo, y antes de carnavales tienen cita con los caldereros y en Magdalenas con la tamborrada. Maiz: «Son eventos históricos, y para cuando nosotros llegamos llevaban muchos años y ya tenían una rutina establecida. Sí que es trabajo, pero ya con la inercia...». Aparte de eventos puramente festivos, también suelen programar actividades para niñas y niños, sin olvidarse de

la población más mayor. Subrayan que, en Alaberga, es la comisión de fiestas la que estimula todas las demás.

Y es que en el barrio no tienen bares, ni tan siquiera peluquería, y como recuerda Bellota, casi toda la vida del barrio se articula alrededor de la sociedad y la plaza de abajo. «Por eso», dice Otamendi, «una asociación de vecinos tiene que hacer actividades; si no las hace, está muerta».

En Gabierrota, en cambio, no ofrecen actividades desde la propia asociación de vecinos, como lo hacían hace años. De eso se encargan la ludoteca, el local de mujeres o el de jubilados. No faltan los bares y los comercios, aunque hayan bajado en número. De momento no tienen ningún plan para ofertar actividades.

Aunque implicarse en movimientos asociativos sea mucho trabajo, se compensa con las muestras de agradecimiento en cada barrio. Díaz de Isla: «Nosotros lo hacemos con todo el cariño del mundo, y la gente nos dice que disfruta mucho durante esos días». Algo parecido pasa en Alaberga, comenta Bellota: «Nos da una satisfacción, a pesar del trabajo. Ves a la gente que viene aquí, cómo lo pasa, cómo disfruta, y nos lo agradece. Eso nos facilita las cosas».

El escritor Eduardo Galeano decía «Mucha gente pequeña en lugares pequeños, haciendo cosas pequeñas pueden cambiar el mundo»; no sabemos si desde Errenteria se está cambiando el mundo. Lo que sí es seguro es que se le da vida a los barrios.



Argazki zaharra

1933ko ekainaren 17an izan zen, ostirala. Egun horretan, eta aurreko egunetan egindako euriagatik —30 ordutan metro koadroko ia 100 litro—, Oiartzun ibaiak Errenteria hartu zuen. Garai hartako kronistek jasoa dute «izu eguna» izan zela egun hartakoa, baina errenteriarren erantzuna «miresgarria» izan zela. Erdiguneko fabriketan, komertzioetan, etxeetan triskantza izugarria eragin zuen Oiartzun ibaiaren gorakadak; udaletxe-raino ere iritsi zen ura. Baina herritarrak kalera atera ziren uraren gorakada bitartean erreskate lanak egitera (ontzietan), eta behin ura kaleetatik desagertu zenean, garbiketa eta berreraikitze lanak burutzerako. Herri honek bada-ki, historiak dio, zailtasunen aurrean elkarlanean jarduten.

Ba al zenekien...

Erdialdea dela **biztanle gehien** dituen auzoa?

En el número anterior de Herri Bizia se comentó que Errenteria cuenta a 31 de diciembre de 2017 (fuente de EUSTAT) con **39.391** habitantes. Desgranémoslos por barrios. El barrio o zona más populosa de la villa es el centro, con **8.809** habitantes. Le siguen Galtzaraborda (**6.200**), Beraun (**4.816**), Lartzabal-Gabierrota-Fanderia (**3.669**), Agustinas-Gaztaño (**3.617**), Iztietta-Ondartxo (**3.354**), Capuchinos (**3.194**), Olibet-Casas Nuevas (**1.482**), Pontika (**1.434**) y Alaberga (**1.188**). En los demás barrios viven **744** habitantes.



Txoko bat

Es más conocida como Kapitain Etxea, pero su primer nombre fue Uranzuko Oinetxea. Se encuentra en la calle Kapitain Enea, y hoy en día, acoge Jantziaren Zentroa. Su configuración actual es de finales del siglo XVII, pero en el solar donde está anteriormente había otro inmueble, que fue totalmente destruido en el gran incendio de 1638.

El primer propietario de la casa fue el batallador marino Martín de Rentería y Uranzu, Machino de Rentería, conocido entre otros por luchar contra las fuerzas francesas defendiendo Hondarribia en los años 1521 y 1523. Después de aquellas batallas, Carlos V lo nombró general, y le dio permiso para tener escudo, que es el que comanda el edificio.

ALTZARIAK JASOTZEKO ZERBITZUA

AURREKO SISTEMA, BERTAN BEHERA

SERVICIO DE RECOGIDA DE MUEBLES

SE SUPRIME EL SISTEMA ANTERIOR



943-34 13 45

Dei gaitzazu **8:00etatik 15:00etara** eta jasotzeko hitzordua zehaztuko dugu.
Llámanos **de 8:00 a 15:00** y concertaremos una cita para la recogida.




Zerbitzuko langileek **BAI** jasoko dituzte:

Altzariak: mahaiaik, armairuak, sofak...
Koltxoak eta somierak.
Lerro zuriko etxetresna elektrikoak: hozkailuak, arropa garbigailuak, mikrouhin-labea...
Lerro gris-marroiko etxe tresna elektrikoak: telebistak, ordenagailuak, dvd irakurgailuak...

El servicio **SÍ** recogerá:

Muebles: mesas, armarios, sofás...
Colchones y somieres.
Electrodomésticos de línea blanca: frigoríficos, lavadoras, microondas...
Electrodomésticos de línea gris-marrón: televisores, ordenadores, reproductores dvd...



Zerbitzuko langileek **EZ** dituzte jasoko:

Pneumatiko zaharrak, pintura poteak, obra hondakinak, olioak, pilak, bateriak eta abar.
Material horiek ohiko garbiguneetara edo datozen hilabeteetan abian jarriko diren garbigune mugikorreletara eramán behariko dituzu.

El servicio **NO** recogerá:

Neumáticos usados, botes de pintura, escombros, aceites, pilas, baterías y similares.
Estos residuos los podrás depositar en la red de garbigenes o en el nuevo servicio de garbigenes móviles que se pondrá en funcionamiento en los próximos meses.

Galarazita dago altzariak kalean uztea deitu gabe; derrigorrezkoa da zerbitzu honetara deitzea edo garbigunera eramatea.

Está **prohibido** sacar muebles a la calle sin llamar; es obligatorio llamar a este servicio o llevarlos al garbigune.



Errenteria
EKO
aktiboa

ingurumena.errenteria.eus

Aldizkari honen hurrengo zenbakiak herritik kanpo bizi den errenteriarren batek jasotzea nahi baduzu bete ezazu beheko formularioa. Si quieres que alguna o algún errenteriarra que viva fuera reciba los siguientes números de la revista háznos llegar sus datos rellenando el formulario:

Izena Nombre _____

Helbide osoa Dirección completa _____



HERRI BIZIA
etorkizunaren bizidun



Errenteriako Udala

Entrega ezazu kupoia udaletxean edo jarri gurekin harremanetan herribizia@errenteria.eus edo 943-44 96 00 telefonoan.
Entrega este cupón en el ayuntamiento o ponte en contacto con nosotros a través de herribizia@errenteria.eus o el teléfono 943-44 96 00.